

## UDAL AURREKONTUAK

# Herritarren proposamenak aste honetako bileretan eztabaidatuko dira

Egun bakoitzean sektore ezberdin batzuetako jendearekin eztabaidatuko da. Aurreko bileretan gazte eta nekazari gutxi azaldu ziren, eta merkatariak ere uste adina ez.

**A**urrekontu parte har-tzaileek bigarren astea izango dute datorren hau. Udalak dei egin die herritarrei zenbat eta zertan gastatu behar den eztabaidatzeko. Aurreko aldian hurbildu zirenek zerbitzuen inguruan hitz egin zuten eta jendeak azaldutako kezkek eta proposamenak ikusita, gai horien bueltan jarraituko dute aste honetan ere. Zaharren egoitza, haur eskola, kiroldegia, kultur etxea eta beste zenbait alor dira begiratu direnak.

### DATU EKONOMIKOAK

Udaleko arduradunek alor bakoitzari dagozkion datu ekonomikoak aurkeztuko dizkiote jendeari, bileretan datu errealean gainean eztabaidatu dezaten.

Udalean esan digutenez, hasierako planak aldatu egin behar izan dituzte, eta eztabaiden erritmoa jaitsi. Gauzak horrela, aurreragoko utziko dute inbertsioei buruzko eztabaida. Zerbitzu bakoitzak zein gastu eta zein irabazi dituen agertuko dute, eta udalak jarri beharrekoa ere bai. □

### BILERAK SEKTOREKA ASTE HONETAN (Udaletxean 20:00etan)

**ASTELEHENA:** Hezkuntza eta kultura

**ASTEARTEA:** Emakumeak eta auzokideak.

**ASTEAZKENA:** Kirola eta euskara.

**OSTEGUNA:** Adinekoak (19:00etan), gazteak eta merkatariak.

**OSTIRALA:** Udal langileak (18:00etan) eta nekazariak.

# 100 'pelotaritik' gora bilduko dira gaur pelota eskolako aurkezpenean

Zortzi urtetik hamairura bitartekoak dira denak; benjaminak, alebinak eta infantilak.



Miel Ezpeleta larunbateko omenaldian, bere eskuetatik pasatako pelotariz inguratua. Gaurtik aurrera izango du berriz ere zein entrenatua.

MIEL Ezpeleta omendu berriak "Hernanin harrobia badago" esan zuen. Ez dirudi oker dabilenik! CD Hernani eta Pelota Elkartek elkarlanean daramakite pelota eskola, eta aurten izen ematea eskulakoa izan da: 120 inguru.

### OMENALDIA

Larunbat gauean, berriz, Miel Ezpeleta omendu zuten kiroldegiko pelotalekuan. Makina bat jende inguratu zitzaion opariak eta zorionak ematera. Miel gustora zegoen: "Pentsatzen nuen opariren bat izango zela

baina hainbeste!". Izan ere, askorenak jaso zituen: Pelota elkartearena (txapela), Besagainen, Herri arteko txapelketako pelotariena, Salaberriarena, Zabala aita-emeena... Orain, gaur arratsaldeko aurkezpenean omen du burua. □

# Odola emateko eguna bihar da, asteartean

Anbulatorioan bertan, 18:30etatik 20:30ak arte.



### Odol emaleak ambulatorioan.

HILEKO lehen asteartean, odol emaleek ambulatorioan izaten dute zita. Gizonezkoak hiru hilean behin eman lezakete eta emakumezkoek lau behin. Elkartekoak odol emale berri eske izaten dira. Aurreko txandan, bost izan ziren berriak. Lehenen-


go aldiz odola eman nahi duenak oso erreza dauka: ambulatorioa joan, txosten bat bete, eta osasun baldintza batzuk betetzen baditu (anemiari eza...) aurrera. Irailean, dena 73 odol poltsa bildu ziren, eta abuztuan, berriz, 74. □

## DROGOMENPEKOTASUNA

# 'Prebentzioa eta Familia' tailerra gaur hasiko da

Familian komunikazioa nola hobetu, heziketa proposamenak... Beldurrik gabe azaltzeko dio Txus Congilik.

ONGINTZAKO Drogomenpekotasun sailak ikasturte berrirako prebentzio programa jarri du martxan. Programak familia du ardatzetako bat. Gaurtik aurrera, astelehenean, *Prebentzioa eta Familia* tailerra egingo dute, drogomenpekotasunari familia barrutik nola aurre egin ikusi eta eztabaidatzeko. "Jakin, badakigu aita eta ama perfekturik ez dagoela, eta guztiok ahalik eta ondoren egiten saiatzen garela." Tailerra Biteri kultur etxean da, 14:45etatik 16:15era. □



Txus Congil, Drogomenpekotasunaren prebentziorako Ongintzako arduraduna.

# Udal liburutegiak ordutegia aldatu du

Neguko ordutegian irikiko da gaurtik aurrera.

UDAL liburutegiak udako ordutegiak aldatu ditu urteroko moduan. Goizez eta arratsalde egongo da nahi duenarentzat. □

### ORDUTEGIA

■ Goizez: 10:00etatik 13:00 arte.


■ Arratsalde: 16:00etatik 20:00ak arte



## KANTUZ ELKARTEA

# Gitarra eta txisturako izen ematea zabalduko da gaur

Urtero izaten dira ikastaroak adin guztietako jendearentzat.



Kantuz Elkarteak Hernaniko eskola guztiekin Preludio Gaztea antolatzen du.

KANTUZ elkartekoek gitarra eta txistu ikastaroak laister jarriko dituzte martxan. Izena emateko epea gaurtik urriaren 19ra dago zabalik. Interesatuak Aristizabal ka-

leko geletatik pasa asteleheneretik ostegunera bitartean, arratsaldeko 5:30etatik 6:30-etara. Bestela, telefono honetara deitu:

☎ 943 333212 ☐

### MUSIKA ESKOLA

7 urteko umeentzako hastapenean, tronpetan, dultzainan eta txalapartan apuntatu nahi dutenek badute lekua oraindik ere Atzietako musika eskolan.

## Etxeberriko Tute txapelketa bigarren fasean

ATZO bukatu zituzten Etxeberriko Tute txapelketako lehen faseko partidak. Orain, 14tik zazpi bikote aurrerako; beste zazpiek elkarrekin errepeska jokatuko dute. Partidak datorren ostegunean eta ostiralean jokatuko dira. Sari banaketa txapelketa bukatu eta denbora batera, San Martinetan egiten da, soziedadearen festa egunean. ☐



Manolo eta Cordero, Markos eta Peperen kontra, tutean atzo.

## ASTEBURUKO EMAITZAK

### LARUNBATA

#### FUTBOLA

·3.maila:

Zamudio 5 - Hernani 1

·Emakumezkoen liga:

Hernani 2- Zumaiako 0

·Gazteen liga nazionala:

Hernani 1 - Athletic 2

·Gateen ohorezko liga:

Hernani 1 - Kostkas 1

·Kadeteen ohorezko liga:

Hernani 2- Zarautz 0

·Kadeteen 2.maila:

Hernani 1- Tolosa 0

·Haurren ohorezko maila:

Arrasate 2- Hernani 0

#### BOLEIBOLA

·Jubenilak:

Hernani 3 - Galdakao 0

·Nagusiak:

Hernani 2 - Sestao 3

#### BOLEIBOLA

·Muguruza - Oregi I 15

Huizi - Bazeta 22

·Esnal - Fuertes 22

Oiaga - Mendia 11

### IGANDEA

#### FUTBOLA

·Gorengo maila:

Mutriku 2- Hernani 2

## LEHIAKETA

BA AL DAKIZU NON DAGOEN?



KRONIKAK proban jarriko zaitu. Ea Hernani zenbat eza-gutzen duzun benetan! Guk, astelehenero, herriko leku edo gauza baten argazkia aterako dugu eta zuk zein tokitan dagoen asmatu.

■ **Erantzunak:** Kronikako buzoian utzi: Larramendi 11, behe. Izen-abizenak eta telefonoa jarri.

■ **Epea:** astebete.

■ **Aurreko astekoa:** Karabelgo ur putzua.

■ **Asmatu dutenak:** Maddi Iradi, Putre, Joxe Mari Zelarain, Leyre Larrañaga, Marian Apezetxea, Denis Sorondo, M<sup>a</sup> Jesus Zabalo.

(Saria gehien asmatzen dituenak eramango du)

## HITZ BITAN

### ✓ HERNANI INSTITUTUA

Hernani institutuko ikasleak Guggenheim eta Arte Ederretako museoetan izan ziren irailean. Artea erakusten duen irakasle eta orientatzailearekin joan ziren "artearen zuzenean gozatzeko asmotan". Guggenheimean bilduma iraunkorra eta Frank O. Gehry-ren arkitektura ikusi zituzten. Arte Ederretako Museoan, berriz, Auguste Rodin-en eskulturak.

### ✓ BOLEIBOLA

UPV-Hernanik 2-3 galdu zuen Sestaoren aurka Ligako lehenengo partidua. Galtzen hasi eta halaxe bukatu zuten nagusiek, gazteek beren partidua irabazi eta gero. Eusebio Lizarazu arduradunak "partidu gogorra" izan zela dio. Partzialek ere halaxe erakusten dute: 20-25/ 25-21/15-25/25-13. Bina berdinketa eta gero, Sestao azkenengo desenpatuan (16-18) aurretik gelditu zen. ☐

## ZERBITZUAK

### ☎ TELEFONOAK

- ☎ Taxiak: 943 550093
- ☎ Udaltzaingoa: 943 333288
- ☎ DYA: 943 464622
- ☎ Autobusak: 943 556662
- ☎ Anbulatorioa: 943 557750

### ➕ ASTEARTEA

- ☎ Egunez: Gomez  
Kale Nagusia, 15  
☎ 943 554892
- ☎ Gaez: Vidaur  
Lasarte. Jaizkibel plaza, 2  
☎ 943 362652

### ➕ FARMAZIAK

- ☎ Egunez: Sagastiberri  
Urbieta, 7  
☎ 943 552941
- ☎ Gaez: Arzallus  
Andoain. Plazaola, 17  
☎ 943 591514

### ➕ ASTEAZKENA

- ☎ Egunez: Bulnes  
Etxeberri  
☎ 943 557738
- ☎ Gaez: De Miguel  
Lasarte. Nagusia, 32  
☎ 943 361556